



ZESTOAKO UDALA

BASERRITARREN BATZARRA

Bigarren saioa: Endoia, Etorra, Lasao

Bilera data : 2024/07/03 **Lekua** : Lasao, Herri Etxea
Hasiera ordua : 18:00 **Bukaera ordua** : 19:00

Bertaratutakoak:

J.L.A.	Etorrazar (Etorra)	P.P.	Zelaitxikieta (Lasao)
M.L.	Etorrazpi (Etorra)	I.G.	Olatxo (Lasao)
I.E.	Olazabalzar (Deba)	J.A.	Edarritzagabarrena (Lasao)
M.U.	Olazarraga (Endoia)	K.G.	Gure toki (Lasao)
I.U.	Olazarraga (Endoia)	P.Z.	Montero (Lasao)
M.J.A.	Otola (Lasao)	J.I.O.	Urkiaundi (Endoia-Deba)
L.M.Z.	Otola (Lasao)	M.T.	Etorrazpi (Etorra)
M.A.	Sustraiaga (Lasao)	X.T.	Etorrazpi (Etorra)
J.E.	Arbegain (Txiriboga)	A.U.	Etorrazpi (Etorra)
I.I.	Eguzki (Txiriboga)	A.G.	Begoñaenea (Etorra)
K.A.	Zelaitxikieta (Lasao)	S.Z.	Gallegi (Lasao-Azpeitia)

Lorea Ilundain	zinegotzia	Montse Atxega	zinegotzia
Aitor Ossa	zinegotzia	Izaskun Larrañaga	ingurumen teknikaria

1. Landa lursailen digitalizazioa

Aipatu da Foru Aldundiko katastroak ez dituela ondo jasotzen lursailen mugak eta azalerak. Hori dela eta, gero eta herri gehiagok digitalizatu ditu udalerriko landa lursailak: Urretxu, Ezkio Itsaso... Bertaratuei adierazi zaie Foru Aldundia ere, arazoaren jakitun izanda, duela urte batzuk, dirulaguntza lerro bat argitaratu zuela Gipuzkoako udalerrientzat. Azken urtetan inguruko hainbat herrik jardun dute lan horretan, dirulaguntza hori lortuta: Aia, Azpeitia...


Zestoako Udalak ere digitalizazio lana egiten hasteko asmoa duela berri eman da. 4-5 urtetako plangintza bat egitea aurreikusi du Udalak. Plangintza ziriborroaren maparen kopiak banatu dira partaideen artean. Bertan, 2024-2027an hasita, lanak zer zonaldetan egingo diren jasotzen da.



ZESTOAKO UDALA

LANDA LURSAILEN DIGITALIZAZIOA

Plangintza ziriborroa (2024-2027)



Honakoak azpimarratu dira:

- Ikusita, Udalean eskaera gehienak Aizarna eta Txiriboga ingurutik jaso direla, eremu honetatik hasia erabaki da.
- Lan handia da. Udalerriak azalera handia duenez, 4 urtetan banatzea proposatu du Udalak.
- Soilik landa lurreko partzelak aztertuko dira.
- Hasieran aurkezpen bilera bat egingo da Udaleko teknikariek proiektua azaltzeko.
- Lurjabeekin egiten den lehen bileran liburuxkak banatuko dira, horien gainean, proposamenak jasotzeko.
- Proposamenak jaso ondoren eta lursailak bertan ikusita, azken liburuxka bat banatuko da.
- Mugakideak mugekin ados ez badaude, lursaila katastroan dagoen bezala gelditzen da. Ados badaude, mugen aldaketa egiten da.

Jakitera eman da banatu den plangintza-ziriborroa proposamen bat dela eta denborarekin aldaketak egon daitezkeela. Plangintza hau fintzen eta zehazten joango da. Aurtengo dirulaguntza deialdia ekainaren 20an argitaratu zen eta egun gutxi barru aurkeztuko du Udalak bere proiektua.

Olatxoko I.G.k galdetu du zenbateko zehaztapena izaten duten neurketa horiek. GPS bidez markatzen dira mugak eta nahiko zehatzak izaten direla argitu da. L.M.Z.k beraien kasuan herriko mugarekin dagoela akatsa eta zuzenketa hori jasotzen den galdetu du. S.Z.k aipatu du Azpeitiko kasuan ez zirela udalerriko mugekin sartu azterketa egiterakoan.

Puntu honekin amaitzeko adierazi da kontu hauetan dugun jakintza gorde eta zehaztuta gelditzea aberatsa dela eta oso baliagarria izan daitekeela hurrengo belaunaldietarako.



2. Baserri bideen konponketak

Aitor Ossak jakinarazi du 2016an Foru Aldundiak eskatutako inbentarioa hartu eta eguneraketak egiten ari dela Udala baserri bideen konponketarako oinarri izateko. Guztira 100 bide eta 66 kilometro daude jasota inbentarioan. Bide horiek guztiak egoki egotea karga ekonomiko handia da Udalarentzat. Udalaren plangintzaren bidez, bideen egoera errebisatu, balorazioa egin eta okerren daudenak konpontzea da asmoa, herrian orokorrean baserri bide duinak izateko.

2024 urterako Akoabidea-Lorbidea-Ezenarroabidea egokitzeko dirulaguntza eskatuta da eta obra hasita dago. Horrez gainera, balorazioaren arabera, okerren daudenak honakoak dira: Lasorrekako bidea (Otoia ingurua), Trukumanbidea, Santa Engraziko bentarako bidea, San Lorente bidea eta Urdanetabidea.

J.I.O.k gaineratu du Urkiaundi baserrirako bidea ere penagarri dagoela. Bidearen egoera ikustea eskatu du. Furgonetak igo ezinda ibiltzen direla aipatu du eta ubideak ere gaizki daudela.

M.A.k, Itzirakoak eskatuta, bideak konpontzerakoan ze irizpide hartzen diren kontuan galdetu du. Foru Aldundiak dirulaguntza ematerakoan kontuan hartzen dituen irizpideak aipatu dira: bideak zerbitzua zenbat ustialekuri ematen dion, erabiltzaile kopurua...

Zelaitxikietako K.A.k adierazi du beraien baserritik Zaldiko zalditegirako bidean harriak solte daudela eta euria egiten duenean Zelaitxikietaraino heltzen direla. Mendiko motorrak ere ibiltzen omen dira. Bideari erretenak ateratzea proposatu du.

Gai honekin amaitzeko, Aitor Ossak gogoratu du Udalak "Zestoa geuk egina" aplikazioa duela herritarrek eskaerak, inzidentziak, proposamenak, kexak... aurkezteko, eta bertaratukoak erabiltzera animatu ditu.

3. Silo bola plastikoen bilketa

Honakoak gogoratu dira:

- Plastikoak hileko bigarren asteartean jasotzen dira, zehaztutako puntuetan.
- Bezperan utzi behar dira bilketa puntuetan.
- Plastikoak ahalik eta garbienak utzi behar dira, lokatarik gabe, sokak kenduta eta aparte utzita, plastikoekin nahastu gabe.
- Jasotzen diren plastiko motak:
 - Siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza
 - Belar boletan erabiltzen den plastikoa
 - Negutegietan eta baratzetan lurra estaltzeko erabiltzen den plastikoa
 - Sokak eta plastikozko pentsu zakuak, aparte bereizita.

Hondakin horiek jasotzeko egituren beharra aipatuta, J.L.A.k eta M.A.k adierazi dute Lau Iturrietako puntuan plastikoak ibaira ez erortzeko hesi moduko zerbait jartzea ondo egongo litzatekeela.



4. Tokiko elikaduraren sustapena

Aitor Ossak tokiko elikadura, lehen sektorea eta baserriarren lanaren garrantzia azpimarratu ditu. Bere iritziz, bertako gutxi jaten dugu eta ez dugu jakiten zehazki zer jaten dugun eta nondik datorren. Udalak bertan ekoiztea eta bertako produktuak kontsumitzea sustatu nahi dituela gaineratu du.

Horrekin lotuta, herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko “Zestotik mahaira” agroekologia zikloa antolatu zuen Udalak (dokumentala, hitzaldia, sukaldaritza ikastaroa...). Balorazio positiboa egin du Udalak, nahiz eta herritar gutxi agertu, elkarrizketa eta hizketaldi interesgarriak sortu zirelako.

Bestalde, Biolurrek Iraetako Amilibia baserria erosi eta nekazaritza lurretan hainbat proiektu egiteko asmoa duela gogoratu du. Udalarentzat ekimen interesgarria dela dio eta babesa emateko asmoa dagoela. Horrez gain, Urkomerekin Zestoako ostiraleko azokan bertako produktuen txoko bat jarri nahi da, bertako nekazaritzari garrantzia emateko. Bertako produktuen azoka berezi hori hilean behin izatea aurreikusten da. Hortaz, Urkomerekin eta Biolurrekin elkarlana egingo du Udalak.

Zestoa eta Urepele senidetzearen proiektuaren baitan ere zenbait ekintza antolatu direla jakitera eman da:

- Ekainaren 15ean Zestoan Urepele eguna egin zen. Hango eta hemengo ekoizleek postuak jarri zituzten.
- Uztailaren 17an Urepeleko ekoizleak Zestoara etorriko dira eta bertakoengandik esperientziak ezagutzeko aukera izango dugu. Egun osoko egitaraua izango da (10:00-19:00). Bertan parte hartzeko aukera irekita dagoela berri eman du.
- Iraila hasieran Zestoatik Urepelera bisita egingo da.
- Iraila amaieran “Laborari gazteak eta emakumeak” jardunaldiak.

Tokiko elikaduraren sustapenaren inguruko proposamenak eta ideiak ongi etorriak izango direla adierazi du Aitor Ossak.

5. Basoak eta lursailak

Aitor Ossak aipatu du legegintzaldi honetan lau zutabe nagusi landu nahi direla ingurumen arloan: hondakinak, energia, elikadura eta basoak. Horren harira, Udalak bertako basoak sustatu nahi ditu. Bertako espezieak babestu nahi dira, bertako biodibertsitatea ez galtzeko.

Udalak gerra garaian herri lursailak saldu behar izan zituen eta horren ondorioz, baso lursail gehienak pribatuak dira. Orain Udalak lurak erosten hasi nahi du, ahal dena babesteko. Printzipioz, tasazio prezioaren arabera erosteko asmoa du. Gai hau bideratzeko aliatu posibleak Tantai baso jabe kooperatiba eta Basoa fundazioa izan daitezke.

Jakitera eman da Ertxingo artadia berreskuratzeko dirulaguntza bat lortu dela eta datozen hilabeteetan, proiektu hori gauzatuko dela herriko lursailetan.

Azpimarratu da lurak erosteko prest dagoena Udalarekin harremanetan jar daitekeela. Aurreikusten den prezioa 0,20 euro/m²ko izango litzateke.



ZESTOAKO UDALA

6. Komunikazio kanalak baserritarrek

Lorea Ilundainek informatu du baserritarrek urtean hiru batzar egingo direla; zonalde bakoitzean bat. Orain arte komunikatzeko erabili diren bideak eskutitza eta sare sozialak izan dira, gehienbat. Agian bide horiek erabilia deialdiaren berri ez dute izan batzuek. Hori dela eta, informazioa zuzenago jasotzeko, komunikazio kanala sortu dela dio, whatsapppe, deialdiak, berriak... bidaltzeko. Komunikazio kanalak informazioa jasotzeko eta denak parte hartzeko txata dituela berri eman da.

I.I.k adierazi du deialdia postaz ez zuela jaso.

Bestalde, jakinarazi da Udala webguneko "Parte hartzea" atalean, azpiatal bat prestatzen ari dela kontuan hartzeko informazioa, agenda eta batzarreko aktak jasotzeko.

Azkenik gai hau ere aipatu dira:

- **Kobertura eta zuntz optikoa.** M.A.k beraien baserri inguruan kobertura falta dela esan du, eta telefonoz komunikatzeko arazoak izaten dituztela. A.G.k beraien ere zuntzik ez dutela gaineratu du. Aitor Ossak erantzun du "euskadibandazabala.eus" atarian informazioa kontsulta daitekeela. Printzipioz, 2025 bukaerako egitasmo hau bukatuta egon beharko luke. I.I.k komentatu du Eguzki baserrian Abaila kooperatibaren bidez lortu zutela interneteko konexioa. J.E.k informatu du Arbegainen Movistarren zuntza badutela.

Bilera bukatzeko, gogoratu da hurrengo baserritarren batzarra azaroan izango dela eta komunikazio kanaletik dataren berri emango dela.